

1,8 milioi euro inbertitu ditu, eta 35 langile izango ditu

**EROSKI-K SUPERMERKATU BAT IREKIKO DU
GIPUZKOAN, ARETXABALETAN**

- Arratsalde honetan inaugurazio ofizial bat egingo dute, Unai Elkoro Oianguren alkatea eta EROSKIko ordezkariak bertan direla
- EROSKIren salmentak ia %2 igo dira EAEn, Nafarroan, Galizian eta Balearretan lehen sei hilabeteetan
- Lau urte honetan 300 milioi euro baino gehiago inbertituta, 670 saltoki dira jada belaunaldi berrikoak EROSKIren sare komertzialean

Aretxabaleta (Gipuzkoa), 2019ko urriaren 16a.- [EROSKI](#)k supermerkatu bat inauguratuko du Aretxabaletako Basabe industrialdeko 2.ean, Gipuzkoan. Supermerkatu berria kooperatibaren Zurekin eredu komertzialekoa da. Eredu horrek elikadura osasungarria eta jasangarria bultzatzen ditu, sasoiko eta tokian tokiko elikagai freskoen proposamen zabal bat eginda.

Kooperatiba ari da pixkanaka gauzatzen irekiera propioen plana penintsularen iparraldean, non oso ospe ona baitu EROSKI. Kooperatibak ia %2 igo ditu salmentak EAEn, Nafarroan, Galizian eta Balearretan urteko lehen seihilekoan. Lau urte honetan 300 milioi euro baino gehiago inbertituta, 670 saltoki dira jada belaunaldi berrikoak EROSKIren sare komertzialean.

EROSKIren supermerkatu berriak EROSKI/City izena edukiko du, eta 1.378 metro koadroko salmenta eremua eta 70 aparkaleku izango ditu. 1,8 milioi euro pasa inbertituta, 35 laguneko lantaldea izango du, zeinak 3.140 prestakuntza ordu baino gehiago jaso baititu bezeroari irtenbide hobeak emateko eta dendan lan egiten duten profesional taldeek berek autogestioan sakontzeko. Hemendik gutxira, EROSKI Bidaiak agentziaren bulego bat irekiko du supermerkatuaren ondoan.

[Osasunaren eta Jasangarritasunaren](#) konpromisoen ildotik, supermerkatu berriak atal berritzaile bat izango du, Elikadura Ekologikoa eta Dietetikoa izenekoa, eta, horrekin batera, janari sorta zabal bat glutenik gabeko dietak egiten dituztenentzat bezala berdin azukre, gatz eta gantz gutxikoak eta horrelako beste dieta batzuk egiten dituztenentzat ere. Nabarmenezkoa da, hala berean, bezeroaren arreta pertsonalaren alde egindako apustua, mahaiak jarri baititu, harategian, urdaitegian eta arrandegian. Arreta pertsonala aldatuz joango da pixkanaka, kontsumitzaileari

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA**CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa



EROSKI Club txartelaren bitartez egindako eskaintzekin eta promozioekin, zeinak dagoeneko 241.000 bezero-bazkidetik gora baititu Gipuzkoan. Horrez gain, supermerkatu berriak norberak ordaintzeko lau gun e izango ditu, laster eta erraz erosi nahi duten bezeroentzat.

Goraka doaz tokiko barazkien, haragiaren eta arrainaren salmentak

Elikadura osasungarriaren eta jasangarriaren aldeko apustu horretan, EROSKIren supermerkatu honek beste ezaugarri bat ere izango du: tokiko ekoizpeneko elikagaien ugartasuna, batez ere bertako eta sasoiko freskoena. Lehen seihilekoan, EROSKI ia %9 igo du barazkien salmenta, eta arrandegiko eta harategiko salmentak, berriz, %10 eta %7,8 hurrenez hurren. EAEko sektore ekonomiko guztiak aintzat hartuta, EROSKI 1.900 hornitzaileekin ari da lanean, eta 650 milioi eurotik gorako erosketak egiten dizkie urtero.

Inaugurazio ekitaldi ofiziala arratsalde honetan

Nahiz eta supermerkatu berriak ateak bihar irekiko dituen jendaurrean (ostegunarekin), 09:00etatik 21:00etara, EROSKIko langileek, senideek eta Bezero Bazkideek arratsalde honetan inauguratuko dute, 19:00etan. Bertan izango dira, hala berean, Unai Eloro Oianguren, udalerriko alkatea, eta EROSKIko ordezkariak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)